***Zortzigarrena: Gorabeherak***

Deialdia, bere oinarriak eta oinarriotatik zein epaimahaien jardunetatik datozen administrazio-egintza guztiak aurka ditzakete interesdunek, beti ere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak jasotako kasu eta moduetan.

**I eranskina**

TEMARIO

1. Uretako salbamendua: Oinarri nagusiak. Metodo ezberdinak azaltzea: Erremolkea, eustea, e.a.

2. Gorputzeko sintomak: Arnasketa - zirkulazioa - azala - begi-niniak - konstante bitalen balore normalak.

3. Pazientearen balorazioa: Paziente EZ traumatikoaren balorazioa - Paziente traumatikoaren balorazioa: Lehen mailakoa, bigarrenekoa, inmobilizazioa, balorazioaren algoritmoak.

4. Paziente traumatikoaren mobilizazioa eta inmobilizazioa: Era bateko inmobilizazioa - mugitzea - lurrean dagoen pazientea - uretan dagoen pazientea.

5. Schoka: Jatorriko kardiako, baskular edo hipobolemikoa. Bestelako faktoreak, jarrera.

6. Hemorragiak: Sailkapena, sintomak, balorazioa eta jarrera.

7. Beroak sortutako lesioak eta trastornoak: Predisposizioa, beroak eragindako nekaldia, bero kolpea.

8. Beso eta hanketako traumatismoak: Sintomak, jarrera.

9. Zauriak: Balorazioa, sailkapena, sintomak, jarrera, konplikazioak, abultsioak.

10. Intoxikazioak: Ziztadurak eta haginkadak eraginda. Alkoholak edo drogek eraginda.

11. Pazientearekiko interakzioa: Osasun asistentziaren mugak - erantzukizun profesionala - Pazientearekin hitz egiteko arau basikoak - Arazo fisiko eta sentsorialak dituzten pazienteak - Arazo mentalak dituzten pazienteak.

Durangon, 2016ko apirilaren 7an.— Alkatea, Aitziber Irigoras Alberdi

(II-1469)

•

**Begirale-sorosle lan-poltsa osatzeko deialdia.**

Durangoko Udaleko toki gobernu batzak, 2016ko apirilaren 7ko ebazpenaren bidez, ondorengo akordio hauek hartu zituen:

*Lehena:* Begirale-sorosle lan-poltsa osatzeko deialdia onartzea eta jendaurrean erakustea.

*Bigarrena:* Aipatutako deialdia arautuko duten hurrengo oinarriak onartzea:

BEGIRALE-SOROSLE LAN-POLTSA OSATZEKO OINARRIAK

**Lehena.—*Deialdiaren helburua eta betebeharrak***

Hautaketa-prozesua deitzen da, lehiaketa-oposizio sistemaren bidez, begirale-sorosle lan-poltsa hautatzeko, derrigorrezko 2 HErekin.

*Ardura nagusiak:*

— Erabiltzaileen segurtasuna eta osotasun fisikoa zaintzea eta udal instalazioen erabilera ona izan dadin segurtatzea.

*Lan nagusien azalpena:*

***— Igerilekuko begiralea***

— Kirol koordinatzailearekin batera, ur arloko hainbat espezialitateko ikastaroak eta jarduerak diseinatzea, garatzea, programatzea eta ematea.

***Octava: Incidencias***

La convocatoria, sus bases y cuantos actos administrativos se deriven de aquéllos y de la actuación del Tribunal, podrán ser impugnados por los/as interesados/as en los casos y en la forma establecida en la vigente Ley de Régimen Jurídico de Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

**Anexo I**

TEMARIO

1. Salvamento acuático: Principios generales, secuencia en la actuación del monitor, ejecución de las acciones elegidas, métodos de remolque, safaduras.

2. Signos y síntomas del cuerpo humano: Respiración. Circulación. Piel. Pupilas. Valores normales de las constantes vitales.

3. Valoración del paciente: Valoración del paciente No traumático. Valoración del paciente traumático: Primaria, secundaria, inmovilización algoritmos de la valoración.

4. Movilización e inmovilización del paciente traumático: Inmovilización completa. Transferencia. Paciente en el suelo. Paciente en el agua.

5. Schok: Origen cardíaco, bascular, hipovolémico, signos y síntomas, factores agravantes, conducta.

6. Hemorragias: Clasificación, signos y síntomas, valoración, conducta.

7. Lesiones causadas por el calor: Trastornos producidos por el calor: Causas, factores predisponentes, agotamiento por calor, golpe de calor.

8. Traumatismos de las extremidades: Signos y síntomas, conducta.

9. Heridas: Valoración, clasificación, signos y síntomas, conducta, complicaciones, avulsiones.

10. Intoxicaciones: Por picaduras y mordeduras, por contacto, abuso de alcohol y drogas.

11. Interacción con el paciente: Limitaciones en la asistencia sanitaria. Responsabilidad profesional. Normas generales para la comunicación con el paciente. Pacientes con limitaciones físicas y sensoriales. Pacientes con alteraciones mentales.

En Durango, a 7 de abril de 2016.—La Alcaldesa, Aitziber Irigoras Alberdi

(II-1469)

•

**Convocatoria para la constitución de una bolsa de empleo de monitor-socorrista.**

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Durango, por Resolución de 7 de abril de 2016, adoptó los siguientes acuerdos:

*Primero:* Aprobar y hacer pública convocatoria para la constitución de una bolsa de trabajo de monitor-socorrista.

*Segundo:* Aprobar las siguientes bases que han de regir la convocatoria anteriormente citada:

BASES PARA LA CONSTITUCIÓN DE UNA BOLSA DE TRABAJO DE MONITOR/A-SOCORRISTA

**Primera.—*Objeto de la convocatoria y funciones***

Se convoca proceso selectivo mediante Concurso-Oposición para la selección de una bolsa de trabajo de monitor/a-socorrista, con PL2 preceptivo.

*Responsabilidades generales:*

— Responsabilizarse de la seguridad e integridad física de los usuarios y del buen uso de las instalaciones municipales.

*Descripción de tareas generales:*

***— Monitor/a piscina***

— Colaborar con el coordinador deportivo en el diseño, elaboración, programación e impartición de los cursillos/actividades de las diferentes especialidades del ámbito acuático.

cve: BAO-BOB-2016a070

— Eskainitako zerbitzuen erabiltzaile potentzialekin eta errealekin harremana izatea, zerbitzu horien diseinua eta exekuzioa optimizatzeko. Batez ere, erabiltzaileei eta ikastaroetako partaideei informazioa eta kirol aholkuak ematea.

— Erabiltzaileekin edo erabiltzaileen guraso/tutoreekin harremana izatea, zerbitzu eraginkorra eta kalitatezkoa lortze aldera.

— Hezkuntza Bereziko umeekin psikomotrizitatea lantzeko bakarkako eta taldekako saioak egitea.

— Kexa, iradokizun, hobekuntza eta antzekoen ebaluazioa eta jarraipena egiteko batzordeetan parte hartzea.

— Kirol materialaren eta instalazioen erabilera eta kudeaketa optimizatzea, euren kudeaketan eta kontrolean parte hartuz, erabilera eraginkor bat lortzeko helburuarekin.

— Lanpostuak eskatu ditzakeen noizbehinkako lan administratiboak egitea, horrela, bere kudeaketa lana optimizatzeko (ikastaroen kudeaketa, zerrendak, estatistikak, eta abar).

— Parte hartzen duen ikastaro eta jardueretako jarraipena, kontrola eta ebaluazioa (bereziki asebetetze mailarena) egiteko lana.

***— Soroslea***

— Ur-erreskateak egitea.

— Igerilekua eta bere ingurua behar den bezala erabiltzen direla kudeatzea, beti ere, eragingarritasuna ziurtatze aldera eta indarrean dagoen legediarekin bat etorriz; halaber, Durango Kirolak-en barne-prozeduran zehazten diren ordenantzak edo gainerako lege-xedapenak jasotzen dutena bete behar dira.

— Erabiltzaileen traumatismo txikiak sendatzea, traumatismo larrietan lehen sendaketak egitea eta erreanimazio kardiobaskularrak egitea gerta daitezkeen ezbeharretan. Hala behar izanez gero, zaurituaren garraioan laguntzea.

— Botikineko osasun-materiala kontrolatzea eta kudeatzea.

— Pertsonalaren ordezkapenak egitea maila bereko langileak oporretan direnean eta epe laburreko gaixotasun-egoeran daudenean.

— Durango Kirolak-en sorosleen eskuliburuak ezartzen duena betetzea.

— Erabiltzaile asko dagoenean harrerako langileei laguntzea jendearen hara-honakoa zuzenduz.

— Arlo profesional honetarako behar den trebakuntza izanik, sorosle eta begirale lanei dagozkien beste lan batzuk egitea.

**Bigarrena.—*Hautagaiek bete beharreko baldintzak***

1. Hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izateko, ondoko baldintzak bete behar dira:

a) Espainiar nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko herrialderen batena, edo Europar Batasunak egindako nazioarteko hitzarmenak direla bide, eta Espainiak izenpetu baldin baditu, langileen zirkulazio askea ezarri daitekeen estaturen batekoa izatea.

Parte hartu ahal izango dute, orobat, Europar Batasuneko nazionalitatea dutenen ezkontideek, betiere, legez bananduta ez badaude. Baita haien eta ezkontideen ondorengoek ere, betiere, baldintza hauekin: ezkontideak legez bananduta ez egotea eta ondorengoak 21 urtetik beherakoak izatea edo, zaharragoak izanik, haien kontura bizitzea.

Lan-kontratudun pertsonalari dagokionez, aurreko paragrafoan aipatzen ez diren atzerritarrek ere hartu dezakete parte baldin eta egoitza Estatu Espainiarrean badute. Aukeratuak geratuko balira, kontratua formalizatu baino lehen, kontratuaren xedean den jarduera burutzeko administrazio-baimenaren jabe direla egiaztatu behar dute.

b) 16 urte eginda edukitzea eta derrigorrezko erretirorako adinik ez edukitzea.

c) Honako tituluren bat izatea: batxilergoa, 2. mailako Lanbide Heziketa edo baliokideren bat, edo berau lortzeko eskubideak ordaindu izana eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

d) Eginkizunak normaltasunez betetzea galarazten duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

— Mantener una relación fluida con los usuarios potenciales y reales de los diferentes servicios que presta, con el fin de lograr la optimización en el diseño y ejecución de los mismos. Especialmente, informar y asesorar deportivamente a usuarios y cursillistas.

— Relacionarse con los usuarios (o tutores/padres de los usuarios), con el fin de lograr un servicio eficiente y de calidad.

— Práctica psicomotriz tanto individual como global con niños de Educación Especial.

— Participar en los comités de evaluación y seguimiento de quejas, sugerencias, mejoras y similares.

— Optimizar el uso y gestión del material y de las instalaciones deportivas, colaborando en la gestión y control de las mismas, con el fin de lograr un uso eficiente.

— Realizar las puntuales tareas administrativas que en razón del puesto desempeñado hubiera de realizar con el fin de optimizar su trabajo de gestión (gestión de cursos, listados, estadísticas, etc.).

— Colaborar en el seguimiento, control y evaluación (especialmente el grado de satisfacción) de los cursos/actividades en las que participe.

***— Socorrista***

— Realizar rescates acuáticos.

— Gestionar el buen uso del vaso de la piscina y su entorno realizando las labores necesarias para su uso eficiente y de acuerdo con la legislación vigente, cumpliendo los preceptos recogidos por las disposiciones legales en la materia, las ordenanzas o los procedimientos internos del propio DK.

— Curar los traumatismos leves, realizar curas iniciales en traumatismos graves y efectuar reanimaciones cardiovasculares en los percances que puedan sufrir los usuarios. Colaborar en su traslado si fuera necesario.

— Controlar y gestionar el material sanitario del botiquín.

— Cubrir las necesidades de sustitución del servicio motivadas por vacaciones o períodos cortos de enfermedad o ausencia de personal de la misma categoría.

— Cumplir con lo establecido en el Manual de Socorrista de DK.

— Realizar en momentos puntuales de gran afluencia de usuarios tareas de apoyo a recepción dirigiendo el flujo de personas.

— Realizar en los dos ámbitos (socorrista y monitor/a) otras tareas propias de su categoría profesional para las que tenga adecuada instrucción.

**Segunda.—*Requisitos de los/as candidatos/as***

1. Para poder tomar parte en los correspondientes procesos selectivos, será necesario:

a) Poseer la nacionalidad española o la de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores.

También podrán participar el cónyuge de los nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separado de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos descendientes menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad y vivan a sus expensas.

Por tratarse de personal laboral, asimismo, podrán tomar parte las personas extranjeras no incluidas en los párrafos anteriores residentes en el estado español. Si resultaran seleccionadas, deberán acreditar la posesión de la autorización administrativa para realizar la actividad objeto del contrato con carácter previo a la formalización de éste.

b) Tener cumplidos 16 años de edad y no haber alcanzado la edad de jubilación forzosa.

c) Estar en posesión del título de Bachiller, Formación Profesional de 2.º grado, o equivalente, o haber abonado los derechos para obtenerlo a la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias.

d) No padecer enfermedad o defecto físico ni psíquico que impida el normal desempeño de las correspondientes funciones.

cve: BAO-BOB-2016a070

e) Eginkizunak betetzeko behar besteko gaitasun funtzionala izatea.

f) Estatuko, autonomia erkidegoetako edo tokiko administrazioetako zerbitzutik diziplina-espediente bidez bereizita ez egotea; edota, kargu publikoak betetzeko ezgaitasunik ez izatea epailearen ebazpenen baten ondorioz, edota funtzionario kidegoa betetzeko edo lan-hitzarmeneko postuan zegoenean betetzen zituen antzeko funtzioak betetzetik apartatua edo ezgaitua izatea. Beste Estatu bateko herritarra izanez gero, antzeko egoera baten ezgaitua ez izatea edota diziplina zigorrik edo antzekorik ez izatea bere Estatuan enplegu publikoan aritzeko dagokionez.

g) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik ez izatea, herri-administrazioen zerbitzura dauden langileentzat bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araubidearen arabera.

h) Ondorengo titulazio hauen jabe izatea:

*Soroslea:*

— Gorputz eta kirol-ekintzak sustatzeko goi mailako teknikaria.

— Salbamendu eta sorospen arloko profesionaltasun ziurtagiriak: ur-instalazioetako sorospena; ur-ingurune naturaletako sorospena; sorospen-zerbitzuen koordinazioa ur-instalazioetan eta ur-ingurune naturaletan.

— Kirol teknikaria edo salbamendu eta sorospeneko goi teknikaria.

— Salbamendu eta sorospeneko entrenatzailea edo kirol teknikaria, I, II edo III. mailan (trantsizio aldian).

— Aurkeztutako datan indarrean dauden ur sorospeneko titulazioak, honako erakundeetako batek emanak: salbamendu eta sorospeneko federazioak (autonomikoak edo espainola), igeriketa federazioak (autonomikoak edo espainola), Gurutze Gorria eta DYA.

* Beste erakundeetako prestakuntza: egokitasuna balioetsiko da.

*Begiralea:*

— Entrenatzailea edo igeriketako kirol teknikaria, I, II edo III. mailan (trantsizio aldian)

— Gorputz eta kirol-ekintzak sustatzeko goi mailako teknikaria

— Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietan lizentziatua.

— Begirale, entrenatzaile laguntzaile edo entrenatzaile izateko titulazioak, igeriketa federazioek (autonomikoak edo espainolak) emandakoak.

i) Desfibriladorea erabiltzeko egiaztagiriaren jabe izatea.

j) 2 HE edo baliokideren bat izatea.

2. Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago bete beharko dituzte baldintza guztiak, eranskinetan beste zerbait adierazten denean izan ezik. Baldintza guztiak hautaketa-prozesu osoan bete behar dira, hau da, kontratu sinatu arte edo bitarteko funtzionario izendatu arte.

3. Langile-gaiek eskaeran eskainitako informazio guztia fitxategi batean jasoko da, eta fitxategi hori administrazio honetan hautespen-prozesua kudeatzeko eta aldi baterako nahiz bitarteko langileak izendatzeko sortuko den lan-poltsa kudeatzeko besterik ez da erabiliko. Fitxategi honen erabilera eta funtzionamendua abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan eta otsailaren 25eko 2/2004 Legean, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoan aurreikusitakoari lotuko zaizkio.

Hautaketa-prozesu honetako hautagaiek, kontrakoa adierazten ez badute, baimena ematen dute beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta xedearekin erabiltzea.

e) Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas.

f) No haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso al cuerpo o escala de funcionario, o para ejercer funciones similares a las que desempeñaban en el caso del personal laboral, en el que hubiese sido separado o inhabilitado. En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado o en situación equivalente ni haber sido sometido a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos el acceso al empleo público.

g) No hallarse incurso/a en causa legal de incapacidad o incompatibilidad, previstas en la normativa vigente en materia de incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas.

h) Hallarse en posesión de las siguientes titulaciones:

*Socorrista:*

— Técnico Superior de Animación en Actividades Físicas y Deportivas.

— Certificados de profesionalidad de la familia de salvamento y socorrismo: socorrismo en instalaciones acuáticas; socorrismo en espacios acuáticos naturales; coordinación de servicios de socorrismo en instalaciones y espacios naturales acuático.

— Técnico Deportivo o Técnico Deportivo Superior en Salvamento y Socorrismo.

— Entrenador o Técnico Deportivo de nivel I, II o III en Salvamento y Socorrismo (de periodo transitorio).

— Titulaciones de socorrista acuático vigentes a fecha de fin de presentación de instancias de socorrista acuático expedidas por las siguientes entidades: federaciones autonómicas o española de salvamento y socorrismo, federaciones autonómicas o española de natación, Cruz Roja, DYA.

* Formaciones de otras entidades: se valorarán su idoneidad.

*Monitor:*

— Entrenador o Técnico Deportivo de nivel I, II o III en Natación (de periodo transitorio).

— Técnico Superior de Animación en Actividades Físicas y Deportivas

— Licenciado en Ciencias de la Actividad Física y el Deporte.

— Titulaciones federativas de monitor, entrenador auxiliar o entrenador nacional de natación expedidas por las federaciones autonómicas o española de natación.

i) Hallarse en posesión del certificado acreditativo del manejo del desfibrilador.

j) Estar en posesión del PL2 o equivalente.

2. Quienes deseen tomar parte en la convocatoria deberán reunir la totalidad de los requisitos exigidos a la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias y mantenerlos durante el procedimiento de selección hasta el momento de la firma del contrato o del nombramiento como funcionario interino.

3. Toda la información facilitada por el personal aspirante en la solicitud será incluida en un fichero cuyo uso se limitará a la gestión del proceso selectivo y a la gestión de las bolsas de trabajo que se van a crear para la contratación temporal y nombramiento de interinos. El uso y funcionamiento de este fichero se ajustará a las previsiones de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y de la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de ficheros de datos de carácter personal de titularidad pública y de creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

Los/as candidatos/as de este proceso selectivo consienten expresamente, salvo manifestación en contra, a que sus datos de carácter personal sean tratados en la forma y al objeto señalado en estas bases.

cve: BAO-BOB-2016a070

**Hirugarrena.—*Eskabideak eta onarpena***

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean, hautagaiek adierazi beharko dute eskatzen zaizkien oinarrietako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela. Eskabideak behar bezala bete eta Udalburuaren izenean aurkeztuko dituzte HAZen (Barrenkalea, 17), behar den moduan beteta, 5 egun baliodunetan, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta. Eskari-orriak udaletxeko www.durango-udala.net webean, Durango Kirolak-eko www.durangokirolak.net webean eta Herritarren Arreta Zerbitzuan eskuratu ahal dira.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak -Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak- 38.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu daitezke eskabideak.

Postetxez aurkeztutako eskabideak gutun-azal irekian aurkeztuko dira, Postetxeko funtzionarioek data eta zigilua jarri diezaieten egiaztatu baino lehen.

Eskabideetan honako agertuko da:

a) Datu pertsonal osoak.

b) Oposizio faseko probak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren: euskaraz edo gaztelaniaz.

c) Ezintasunen bat dutenek eskabidean eman beharko dute horren berri eta, hala behar izanez gero, hautaprobak egiteko zer egokitzapen tekniko behar dituzten adieraziko dute.

Eskabideari hauxe gehituko zaio:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

b) Dagokion lanposturako eskatzen den titulazioaren fotokopia.

c) Euskarazko egiaztagiri edo tituluaren fotokopia, halaxe ezartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen euskararen erabilera arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikuluak. Egiaztagiri edo kopia honen bidez lanpostuari dagokion 2 HE, baliokideren bat edo gorengo baten jabe dela egiaztatzen da.

d) Azterketa egiteko tasa ordaindu izanaren ziurtagiria: 34,91 euro. %50eko hobaria izango dute familia guraso bakarreko eta familia ugarien titularrek eta oinarrizko errenta jasotzen dutenek. Baldintza horiek baino gehiago betetzen dituzten hautagaiek tasaren %100 ordainduko dute, eta gero %50a itzuli dakiela eskatu behar dute beste eskari bat aurkeztuta. Tasa ordaintzerakoan, ezinbestekoa da honakoa jartzea MO+NAN zk. Adibidez: MO30677643. Kontu zenbakia: ES59 2095 0036 63 32 3904 3479.

e) Merezimendu guztien zerrenda aurkeztu beharko da, merezimendu horiek egiaztatzen dituzten agiriak eta guzti. Honetarako fotokopiak aurkeztu beharko dira.

Ezin izango da baloratu eskabideak aurkezteko epearen barruan aurkeztu eta frogatu ez den merezimendurik, ezta ere, epearen barruan aurkeztuta egon arren, ondoren frogatutako merezimendurik.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Alkate-udalburuak, ebazpena emango du onartutakoen eta bazter utzitakoen behin-behineko zerrenda onartzeko. Ebazpena Udaletxeko Iragarki Taulan, Udaleko honako web orrian eta Durangoko Kirolak-en web orrian argitaratuko da.

Bazter utzitakoen kasuan, baztertzeko arrazoia zehaztu beharko da zerrendan eta 4 eguneko epean, bazter geratzen direnek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eta, hala denean, egindako hutsak zuzendu edo agiriak erantsi. Erreklamazioak aurkezteko epea igarota, onartutakoen eta bazter utzitakoen zerrenda onartu duen agintariak erreklamazio horiek ebatziko ditu. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da. Behin betiko zerrenda, behin-behineko zerrenda argitaratutako era eta modu berean argitaratuko da.

**Tercera.—*Instancias y admisión***

Las instancias solicitando tomar parte en el proceso selectivo, en las que los/as aspirantes deberán manifestar que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en las Bases de la convocatoria, se dirigirán a la Alcaldía y se presentarán en el Servicio de Atención Ciudadana (SAC), sito en Barrenkalea, 17, debidamente rellenadas, en el plazo de 5 días hábiles contados desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el «Boletín Oficial de Bizkaia». Las instancias se realizarán en el modelo oficial que será facilitado en la web de Ayuntamiento de Durango www.durango-udala.net, en la web de DK www.durangokirolak.net y en el SAC.

Las instancias también podrán presentarse en cualquiera de los lugares que determina el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Las solicitudes que se presenten a través de las Oficinas de Correos deberán ir en sobre abierto para ser fechadas y selladas por el personal funcionario de Correos antes de su certificación.

Las instancias deberán señalar:

a) Datos personales completos.

b) Idioma oficial, euskera o castellano, en que se desea realizar los ejercicios de la fase de oposición.

c) Las personas afectadas por discapacidades deberán hacer constar este hecho y las adaptaciones técnicas que, en su caso, consideren necesarias para la realización de las pruebas selectivas.

A la instancia se acompañará:

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad.

b) Fotocopia de la titulación exigida para el acceso a la plaza correspondiente.

c) Fotocopia de alguno de los certificados o títulos, que se expresan en el artículo 41 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, como medio de acreditar que se está en posesión del perfil 2 o equivalente o alguno superior.

d) Justificante del abono de la tasa por derechos de examen: 34,91 euros. Tendrán una bonificación del 50% sobre esta tasa los titulares de familias monoparentales y numerosas perceptoras de renta básica. Los/as aspirantes que cumplan con tales requisitos de forma acumulativa deberán abonar el 100% de la tasa y solicitar la devolución en instancia aparte del 50% de la misma aportando la justificación documental pertinente. A la hora de abonar la tasa, es obligatorio indicar como concepto de ingreso MO + n.º DNI. Ejemplo: MO30677643. n.º de cuenta: ES59 2095 0036 63 32 3904 3479.

e) Adjuntarán una declaración en la que relacionen los méritos alegados, acompañando los documentos suficientes acreditativos de los mismos. A tal efecto, deberán aportarse fotocopias.

No podrán valorarse méritos distintos a los alegados y justificados dentro del plazo de presentación de instancias, ni aquellos otros que, alegados dentro de dicho plazo, sean justificados posteriormente.

Terminado el plazo de presentación de instancias, la Alcaldía aprobará la lista provisional de los/as aspirantes admitidos/as y excluidos/as. Dicha resolución se hará pública en el tablón de edictos y la web de la Corporación, así como en la web de Durango Kirolak.

Tal relación expresará, con referencia a cada uno/a de los/as aspirantes excluidos/as, las causas que hubieran motivado su exclusión, concediendo un plazo de 4 días hábiles para reclamar contra tal exclusión y subsanar las faltas o documentos que hubieran motivado la misma. Transcurrido el citado plazo de reclamaciones, la autoridad que hubiera aprobado la resolución de admisión y exclusión de aspirantes resolverá las reclamaciones presentadas. En caso de no presentarse reclamaciones se elevará a definitiva la lista provisional. Tal listado se publicará por los mismos medios que la lista provisional.

cve: BAO-BOB-2016a070

**Laugarrena.—*Epaimahaia***

Epaimahaian honakoak egongo dira: presidentea, idazkaria eta hiru bokal.

Epaimahaiak, egoki baderitzo, aholkulari espezialistak eduki ahal izango ditu bere kideei laguntza emateko. Aholkulariok beren espezialitate teknikoetara mugatuko dute jarduna, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 31.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita; aholkuak eta laguntza teknikoa eskainiko dute beren espezialitate teknikoetan eta hitzarekin baino botorik gabe jardungo dute.

Epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu prozeduran, eta hala jakinaraziko diote Udal-buruari, baldin eta azaroaren 26ko 30/1992 Legeak -Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak- 28. artikuluan jasotako kasuren bat gertatzen bada. Aurreko kasuetako bat gertatzen denean hautagaiek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, betiere aipatutako legearen 29. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Epaimahaietako titularrek, epaimahaiburuak, idazkariak eta gainerako kideek, beren ordezkoak izango dituzte; ezin izango da kargua eskuordetu eta epaimahaia ezin izango da eratu eta ezin izango du jardun, gutxienez, kideen erdiak -titularrak zein ordezkoak- baino gehiago ez badaude.

Epaimahaiko kide guztiek izango dituzte hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, honek ez baitu botorik edukiko. Bertaratutakoen botoen gehiengoz hartuko dira erabakiak eta hainbanaketa egonez gero, epaimahaiburuaren botoak erabakiko du.

Gaixotasun bat edo hutsegiteren bat egonez gero, eta orokorrean, pisuzko arrazoiren bat dagoenean, organo kolegiatuko kide titularren lekuan ordezkoak arituko dira. Hutsegite, gaixotasun edo bestelako arrazoi legalen bat gertatzen bada, presidentearen ordez bere ordezkoak jardungo du eta, ordezkoak ezingo balu, hierarkia, antzinatasun eta adin handieneko epaimahaikidea arituko da. Idazkariaren aldi baterako ordezkapena, etorri ezin delako edo gaixorik delako, bere ordezkoak beteko du edo, hala ez balitz, idazkariaren beraren akordio bidez egingo da.

Epaimahaiak oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu eta deialdia behar bezala garatzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu.

Epaimahaiek izango dituzten titular eta ordezkoen izen-deituren zerrenda baztertu eta onartuen behin behineko zerrendarekin batera, alkate-udalburuak halaxe izendatu eta gero.

Komunikazio eta bestelako gora beheretarako, hauxe izango da Epaimahaiaren helbidea: Durangoko Udala, pertsonal saila, Barrenkalea, 17, 1. 48200-Durango.

**Bosgarrena.—*Hautaketa-prozesua hasteko eguna eta hurrengoak***

Oposizio-aldiko ariketa bakoitzean, deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei. Azterketa egitera azaltzen ez direnak hautaprobetatik baztertuta geratuko dira eta ezingo dute ez ariketa hori ez hurrengoak egin, behar bezala egiaztatutako kasuetan eta epaimahaiak halakotzat jotzen dituenetan izan ezik. Arau bera aplikatuko da nahitaezko ariketak egiten hasiak direnean. Borondatezko probak egitera aurkeztu ezean edo berandu azalduz gero, proba horiek egiteari uko egin zaiola ulertuko da.

Epaimahaiak edozein unetan eskatu diezaieke hautagaiei behar den moduan identifikatu daitezen. Honekin lotuta, ariketa guztietara nortasun-agiria eraman behar da, edo epaimahaiak identifikatzeko egokitzat jotzen duen beste edozein agiri (pasaportea, gidabaimena...).

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero hautagairen batek deialdiko baldintza guztiak betetzen ez dituela, hautagaia baztertuta utziko du, entzunaldia egin ondoren, eta honen berri emango dio egun berean hautaketa-prozesurako deialdia egin duenari.

**Cuarta.—*Tribunal calificador***

El Tribunal contará con un/a Presidente/a, un Secretario/a y tres Vocales.

El Tribunal podrá disponer la incorporación a sus trabajos de asesores/as especialistas, para todas o algunas de las pruebas de las que conste el proceso selectivo, que se limitarán al ejercicio de sus especialidades técnicas, a tenor de lo establecido en el artículo 31.3 de la Ley 6/1989 de la Función Pública Vasca, prestando su asesoramiento y colaboración técnica en el ejercicio de sus especialidades, actuando con voz pero sin voto.

Los/as miembros del Tribunal deberán abstenerse de intervenir, notificándolo al Presidente de la Corporación, cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 28 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y los/as aspirantes podrán recusarlos conforme a lo establecido en el artículo 29 de la citada Ley cuando concurra alguna de las causas previstas en el artículo anterior.

El Tribunal quedará integrado además por los/as suplentes respectivos/as que, simultáneamente con los/as titulares, habrán de designarse para el Secretario/a del Tribunal y Vocalías del mismo no delegables y no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia, como mínimo, de la mitad de sus miembros, titulares o suplentes, indistintamente.

Todos los/as miembros del Tribunal tendrán voz y voto con excepción del Secretario/a del mismo, que carecerá de esta última cualidad. Las decisiones del Tribunal se adoptarán por mayoría de los votos presentes, resolviendo, en caso de empate, el voto del que actúe como Presidente/a.

En caso de ausencia o de enfermedad y, en general, cuando concurra alguna causa justificada, los miembros titulares del órgano colegiado serán sustituidos por sus suplentes. En casos de vacante, ausencia, enfermedad, u otra causa legal, el Presidente será sustituido por su suplente y, en su defecto, por el miembro del tribunal de mayor jerarquía, antigüedad y edad, por este orden, de entre sus componentes. La sustitución temporal del Secretario en supuestos de vacante, ausencia o enfermedad se realizará por su suplente o, en su defecto, por acuerdo del mismo.

El Tribunal queda facultado para resolver las dudas que se presenten y adoptar los acuerdos necesarios para el buen orden y desarrollo del proceso selectivo en todo lo no previsto en estas Bases.

La relación nominal de las personas titulares y suplentes que integran el Tribunal se publicará conjuntamente con las relaciones provisionales de admitidos/as y excluidos/as al proceso selectivo, previa su designación por la Alcaldía Presidencia.

A los efectos de comunicaciones y demás incidencias, el Tribunal Calificador tendrá su domicilio en el Servicio de Personal del Ayuntamiento de Durango, sito en Barrenkalea, núm. 17, 1.º, 48200-Durango.

**Quinta.—*Comienzo y desarrollo del proceso selectivo***

Los/as opositores/as serán convocados/as para cada ejercicio en llamamiento único, y la no presentación de un/una opositor/a a cualquiera de los ejercicios en el momento de ser llamado determinará automáticamente el decaimiento de su derecho a participar en el mismo ejercicio y en los sucesivos, quedando excluidos en consecuencia del proceso selectivo. La misma regla se aplicará a aquellos aspirantes que concurran a la realización de cualquiera de los ejercicios obligatorios una vez iniciada la ejecución de los mismos. La ausencia o retraso a la realización de las pruebas voluntarias tendrá la consideración de renuncia a las mismas.

El Tribunal calificador podrá en todo momento requerir a los/as aspirantes para que se identifiquen debidamente, a cuyo efecto habrán de concurrir a la realización de cada ejercicio de la oposición provistos/as del DNI u otro documento que a juicio del tribunal resulte suficientemente acreditativo de la identidad del opositor/a (pasaporte, carnet de conducir).

Si en cualquier momento del procedimiento llegara a conocimiento del Tribunal que alguno/a de los/as aspirantes carece de los requisitos exigidos en la convocatoria, se le excluirá de la misma, previa audiencia del interesado/a, dando cuenta el mismo día, a la autoridad que haya convocado el proceso selectivo.

cve: BAO-BOB-2016a070

**Seigarrena.—*Hautaketa-prozesua***

***— Lehiaketa fasea: 42 puntu***

Lehiaketa fasea ez da baztergarria izango, eta ez da kontuan hartuko oposaketa faseko azterketak gainditzeko. Lehiaketa fasean hautagaiek zehazturiko eta egiaztaturiko merituak neurtuko dira. Hautagai bakoitzari eranskinean zehazturiko baremoaren araberako puntuak emango zaizkio. Kontuan hartuko diren meritu bakarrak eskaera-orriak aurkezteko epea amaitu aurretik aurkeztutakoak izango dira.

Eskabideak aurkezteko epe barruan aurkeztutako merituak baino ez dira kontuan hartuko.

Durangoko udaleko administrazioan egindako zerbitzuak alegatu egin behar dira, baina interesatuek ez dituzte zertan egiaztatu behar, administrazioak berak zenbatuko ditu ofizioz. Administrazio Publikoen zerbitzura egindako denbora administrazio bakoitzak egiaztatu beharko du horretarako daukan ereduaren arabera. Edozein modutan, lanean jardundako aldiak sailkatu behar dira eta, era berean, zein kidego edo eskalan, azpi-eskalan, mailan eta sailean jardun duen ere zehaztu behar da.

Enpresa pribatuetan egindako zerbitzuak egiaztatzeko lan-bizitzari buruzko informea aurkeztu behar da eta, halaber, lan-kontratua eta enpresaren egiaztagiria. Azken honetan lanpostua eta eginkizunak zehaztuko dira.

Hilabeteak konputatzerako orduan, deialdi honen baremoei dagokienez, honako formula hau jarraituko da:

(egun kopurua/365) x 12, dezimalak ez dira kontuan hartuko.

Deialdi honetako meritu-baremoa honako hau da:

— Esperientzia, Herri Administrazioan edo enpresa pribatuan, antzeko eginkizunak dituzten lanpostuetan. Gehienez ere, 20 puntu, eta 0,4 puntu/hileko.

— Prestakuntza eta hobekuntza jarduerak:

- Aquagym: 7 puntu.
- Aquabike: 7 puntu.
- Beste batzuk (begirale tituluaz aparte), eta lanpostuaren eginkizunekin zerikusia dutenak. Gehienez ere 8 puntu, eta puntu 1 ikastaro bakoitzeko.

Ez dira kontuan hartuko ikastaroen iraupena aipatzen ez dituzten egiaztagiriak, ezta ere 10 orduz beherakoak.

***— Oposizio fasea: 100 puntu***

Oposizio-aldiak bi (2) ariketa izango ditu, guztiak derrigorrezkoak eta baztertzaileak.

1. *Lehenengo ariketa*

Gaitegiko gaiak garatuko dira idatziz edo/eta gaitegiko edozein gairi buruzko galde-erantzunen galdetegiari erantzun beharko zaio.

Ariketa honegatik, gehienez ere, 80 puntu emango dira.

Ariketa gainditzeko, gutxienez, 40 puntu atera behar dira.

2. Bigarren ariketa

Bat edo proba praktiko batzuk egingo dira lanpostuan aritzeko behar diren abileziak neurtzeko.

Ariketa honetan, gehienez ere, 20 puntu lortu ahal dira.

Ariketa gainditzeko, gutxienez, 10 puntu atera behar dira.

Epaimahaiak, hala balegokio, aldatu egin ditzake azterketen ordena eta erabaki dezake, baita ere, egun berean azterketa bat baino gehiago egitea.

**Zazpigarrena.—*Lan-poltsa osatuko duten gainditutakoen zerrenda***

Behin betiko sailkapen-ordena egiteko kontuan hartuko dira oposizio aldian eta lehiaketa aldian lortutako puntuazioak.

**Sexta.—*Procedimiento de selección***

***— Fase de concurso: 42 puntos***

La fase de concurso no tendrá carácter eliminatorio, ni podrá tenerse en cuenta para superar las pruebas de la fase de Oposición. La fase de Concurso consistirá en el examen y valoración de los méritos alegados y acreditados de los/as aspirantes y se efectuará asignando a cada uno de ellos los puntos que le correspondan con arreglo a los baremos de la convocatoria. En ningún caso podrán valorarse los méritos que no hubieran sido debidamente alegados y acreditados en el plazo establecido para su presentación.

Únicamente computarán los méritos contraídos hasta el día en que finalice el plazo de presentación de instancias.

Los servicios prestados en la Administración del Ayuntamiento de Durango deberán ser alegados, aunque no deberán ser acreditados por los/as interesados/as. Los mismos serán computados de oficio por dicha Administración. El tiempo de servicios prestados en el resto de Administraciones Públicas será certificado en el modelo que cada una de ellas tenga establecido para tal fin. En todo caso, deberán desglosarse los períodos trabajados especificando el Cuerpo o Escala, Subescala y Clase o Categoría a que se refieren dichos períodos.

Los servicios prestados en empresas privadas se acreditaran obligatoriamente mediante informe de vida laboral, acompañado por contrato de trabajo y/o certificación de la empresa en la que conste en puesto que se ocupa y las funciones del mismo.

Todos los cómputos de meses a que obliguen los baremos de la presente convocatoria se realizarán con arreglo a la siguiente fórmula:

(núm. de días/365) x 12, despreciando decimales.

El baremo de méritos para esta convocatoria es el siguiente:

— Experiencia en puestos de monitor-socorrista o similares en la Administración Pública o empresa privada hasta un máximo de 20 puntos, a razón de 0,4 puntos/mes.

— Actividades formativas y de perfeccionamiento:

- Aquagym: 7 puntos.
- Aquabike: 7 puntos.
- Otros (que no sean el título de monitor), relacionados con las funciones del puesto (natación o actividades acuáticas) hasta un máximo de 8 puntos, a razón de 1 punto por curso.

No se computarán los certificados en los que no conste las horas de duración del curso y los cursos inferiores a 10 horas.

***— Fase de oposición: 100 puntos***

La fase de oposición consta de dos (2) ejercicios, todos ellos de carácter obligatorio y eliminatorio:

1. *Primer ejercicio*

Consistirá en el desarrollo por escrito de los temas y/o cuestionario de preguntas con respuestas alternativas referente a cualquiera de los temas del temario.

Este ejercicio se valorará con un máximo de 80 puntos.

Para superarlo será necesario un mínimo de 40 puntos.

2. *Segundo ejercicio*

Consistirá en uno o varias pruebas prácticas relativas a la evaluación de las destrezas propias e imprescindibles para el desempeño del puesto.

Este ejercicio se valorará con máximo de 20 puntos.

Para superarlo será necesario un mínimo de 10 puntos.

El Tribunal Calificador podrá variar, en su caso, el orden de las pruebas especificadas así como decidir realizar más de una prueba el mismo día.

**Séptima.—*Relación de aprobados/as que integrarán la bolsa de trabajo***

El orden de clasificación definitivo en la bolsa de trabajo vendrá determinado por la suma de las puntuaciones obtenidas en la fase de oposición y en la del concurso.

cve: BAO-BOB-2016a070

Berdinketarik gertatuez gero, sailkapen-ordena egiteko honakoak hartuko dira kontuan:

— Lehenengo, ariketa teorikoan puntuaziorik altuena lortu duen hautagaiaren alde.

— Bigarrenik, lan eskarmentu handiena ziurtatu duen hautagaiaren alde.

— Azkenik, zozketaz.

Azterketa bakoitzari buruzko puntuazioak Udaletxeko iragarki taulan, udaleko webean eta Durango Kirolak-en webgunean argitaratuko dira.

Oposizio-aldiko azken ariketa egin ostean eta, egonez gero, lehiaketa-aldia behin amaitu ondoren, epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du, dagozkion kalifikazioekin eta lortutako puntuazioaren arabera. Zerrenda horiek osatu ondoren, Udaletxeko iragarki taulan eta Udaleko eta Durango Kirolak-eko webguneetan argitaratuko dira.

Dena delako hautaketa prozesutik ateratzen diren gaindituen zerrendak baliagarriak izango dira aldi baterako funtzionarioak edo lan-kontratudun pertsonala izendatzeko, beti ere, indarrean dagoen araudiak hala aurreikusten baitu, eta Udalbatzak zerbitzuak eskaintzeko dituen aldi baterako lan-poltsetan sartuko dira.

I ERANSKINA

**GAITEGIA**

1. Uretako jardueren planteamendu orokorrak.- Uretako jardueren helburuak: utilitarioa, osasuntsua, hezgarria, jolasekoa, lehiagarritasuna.-

2. Helburuetan eragiten duten faktoreen azterketa: denbora, giza faktorea, ingurugirokoa, intentzionala-instituzionala.

3. Uretara egokitzea: uretan eta lur gainean ibiltzerakoan gizakiak dituen ezberdintasunak. Uretan eroso ibiltzea. Flotazioa eta oreka. Arnasa hartzen ikastea. Propultsioa. Beldurra kentzea.

4. Uretako jardueretako ikaskuntzaren metodologia: beldurra gainditzea. Estrategiak igerian erakusteko orduan. Metodo zehatzak. Programaketak, igerilekuaren arabera. Taldeak antolatzea. Materiala erabiltzea. Estilo eta aholku pedagogikoak.

5. Psikopedagogia: Psikologia ebolutiboa. Umearen arazo psikologikoak uretaratzen denean. Uretako abilitateak ikasteko printzipioak.

6. Anatomia: Hezurrak, artikulazioak eta giharrak. Aparatu kardiozirkulatorioa. Odola. Arnasketa aparatua. Digestio aparatua. Sistema endokrinoa. Sistema urinarioa. Nerbio sistema.

7. Irakaskuntza giza talde ezberdinekin: Hirugarren adinekoekin, nagusiekin, umeekin eta bestelakoekin.

8. Estiloak konparatzea: Lau estiloek elkarrekin dutena. Kontuan hartu beharreko aspektu pedagogikoak. Estiloak: krola, tximeleta, bizkarrekoa, braza.

9. Igeriketa hezgarria: Uretako hezkuntza fisikoko elementuen konposizioa: desplazamenduak, itzuliak, jauziak, jaurtiketak eta jasotzeak, oreka, e.a.

10. Uretako salbamendua: Oinarri nagusiak. Metodo ezberdinak azaltzea: erremolkea, eustea, e.a.

11. Gorputzeko sintomak: Arnasketa – zirkulazioa – azala – begi-niniak- konstante bitalen balore normalak

12. Pazientearen balorazioa: Paziente EZ traumatikoaren balorazioa – Paziente traumatikoaren balorazioa: lehen mailakoa, bigarrenekoa, inmobilizazioa, balorazioaren algoritmoak.

13. Paziente traumatikoaren mobilizazioa eta inmobilizazioa: era bateko inmobilizazioa – mugitzea – lurrean dagoen pazientea – uretan dagoen pazientea.

14. Shocka: Jatorriko kardiako, baskular edo hipobolemikoa. Bestelako faktoreak, jarrera.

En caso de empate, el orden se establecerá atendiendo:

— En primer lugar, a favor del/la aspirante que hubiera obtenido mayor puntuación en el ejercicio teórico.

— En segundo lugar, a favor del/la aspirante que haya acreditado mayor experiencia profesional.

— En último lugar, por sorteo.

Las puntuaciones de cada ejercicio se harán públicas mediante el correspondiente anuncio en el tablón de anuncios y la página web de la Corporación, así como en la web de DK.

Finalizado el último ejercicio de la fase de oposición y, en su caso, la fase de concurso, el Tribunal confeccionará, de acuerdo con las calificaciones correspondientes, relaciones de aprobados/as, por orden de puntuación. Una vez establecidas las relaciones indicadas las hará públicas en el tablón de anuncios y la página web del Ayuntamiento, así como en la página web de DK.

Las listas de aprobados/as resultantes del correspondiente proceso selectivo serán válidas para el nombramiento como funcionario/a interino/a o personal laboral cuando se den los supuestos que la normativa vigente prevé, y se integrarán en las Bolsas de Trabajo utilizadas para la prestación de servicios de carácter temporal de la Corporación.

ANEXO I

**TEMARIO**

1. Planteamientos genéricos de las actividades acuáticas. Objetivo de las actividades acuáticas: Utilitario, de salud, educativo, recreativo, competido.

2. Análisis de los factores que inciden sobre los objetivos: Factor tiempo, humano, ambiental, intencional-institucional.

3. Adaptación al medio acuático: Diferencias fundamentales del ser humano y su movimiento en el medio acuático con respecto al terrestre. Familiarizaron con el equilibrio acuático. La flotación y el equilibrio en el agua. La respiración en un medio diferente. La propulsión. El miedo en el proceso de adaptación.

4. Metodología del aprendizaje en las actividades acuáticas: El dominio del medio. Tipo de habilidades y estrategia en la enseñanza. Métodos concretos de enseñanza. Programación en función de la piscina. Organización de grupos, utilización de material, estilos y recomendaciones pedagógicas.

5. Psicopedagogía: Psicología evolutiva. Aspectos psicológicos del niño en la adaptación al medio acuático. Principios de aprendizaje de las habilidades acuáticas.

6. Anatomía. Aparato locomotor, huesos, articulaciones y músculos. Aparato cardiocirculatorio. La sangre. Aparato respiratorio. Aparato digestivo. Sistema endocrino. Sistema urinario. Sistema nervioso.

7. La enseñanza en poblaciones especiales: La enseñanza con tercera edad, con adultos, con niños y otras poblaciones.

8. Comparación estilos: Aspectos comunes a los cuatro estilos. Aspectos pedagógicos a tener en cuenta en la enseñanza: Estilo Crol, Estilo Mariposa, Estilo Espalda, Estilo Braza.

9. Natación educativa: Esquema de composición de elementos de educación física de base en el medio acuático: Desplazamientos, Giros, Saltos, Lanzamientos y recepciones, Equilibrios.

10. Salvamento acuático: Principios generales, secuencia en la actuación del monitor, ejecución de las acciones elegidas, métodos de remolque, safaduras.

11. Signos y síntomas del cuerpo humano: Respiración. Circulación. Piel. Pupilas. Valores normales de las constantes vitales.

12. Valoración del paciente: Valoración del paciente No traumático. Valoración del paciente traumático: primaria, secundaria, inmovilización algoritmos de la valoración.

13. Movilización e inmovilización del paciente traumático: Inmovilización completa. Transferencia. Paciente en el suelo. Paciente en el agua.

14. Shock: Origen cardíaco, bascular, hipovolémico, signos y síntomas, factores agravantes, conducta.

cve: BAO-BOB-2016a070

15. Hemorragiak: Sailkapena, sintomak, balorazioa eta jarrera.

16. Beroak sortutako lesioak eta trastornoak: predisposizioa, beroak eragindako nekaldia, bero kolpea.

17. Beso eta hanketako traumatismoak: sintomak, jarrera.

18. Zauriak: balorazioa, sailkapena, sintomak, jarrera, konplikazioak, abultsioak.

19. Intoxikazioak: Ziztadurak eta haginkadak eraginda. Alkoholak edo drogek eraginda.

20. Pazientearekiko interakzioa: Osasun asistentziaren mugak – erantzukizun profesionala – Pazientearekin hitz egiteko arau basikoak – Arazo fisiko eta sentsorialak dituzten pazienteak – Arazo mentalak dituzten pazienteak.

Durangon, 2016ko apirilaren 7an.—Alkatea, Aitziber Irigoras Alberdi

(II-1468)

15. Hemorragias: Clasificación, signos y síntomas, valoración, conducta.

16. Lesiones causadas por el calor: Trastornos producidos por el calor: causas, factores predisponentes, agotamiento por calor, golpe de calor.

17. Traumatismos de las extremidades: Signos y síntomas, conducta.

18. Heridas: Valoración, clasificación, signos y síntomas, conducta, complicaciones, avulsiones.

19. Intoxicaciones: Por picaduras y mordeduras, por contacto, abuso de alcohol y drogas.

20. Interacción con el paciente: limitaciones en la asistencia sanitaria. Responsabilidad profesional. Normas generales para la comunicación con el paciente. Pacientes con limitaciones físicas y sensoriales. Pacientes con alteraciones mentales.

En Durango, a 7 de abril de 2016.—La Alcaldesa, Aitziber Irigoras Alberdi

(II-1468)

•

## Portugaleteko Udala

**Udal hilerriko 14. aldiko horma-hilobietako giza hondarrak ateratzea.**

Pandoko udal hilerriak egoki funtzionatuko badu, sepulturetatik (nitxoetatik eta lur hilobietatik) giza hondarrak atera behar dira, Udalak ematen dituen hileta eskubideen epea igaro ahala, horien helburua bete dadin.

Egiaztatuta, bada, Udalaren datuen arabera, 14. aldiko horma-hilobiek agortu egin dutela hamar urteko epe hori, ikusita Portugaleteko Hilerriaren Araudiko V. tituluan (Hilobiak) ezarritakoa eta Osasun-Hileta arloko Zaingoari buruzko indarreko Araudiaren 59. artikulua bete nahian, artikulu horrek agintzen duelarik giza hondarrak sepulturetatik atera baino hiru hilabete lehenago halaxe jakinarazi behar zaiela herritarrei hainbat iragarki argitaratuz aldizkari ofizialetan eta udalerrian hedapen handiena duen egunkari pribatuetan, hildakoen familiek beren eskubideak ahalbidetzen dizkien erabakiak hartzeko modua izan dezaten, Lan Sailak eta Hiri Plangintza eta Garapenerako Batzorde Informatzaileak proposatuta, Udalaren Gobernu batzordeak, 2016ko martxoaren 11n egindako bilkuran,

HAUXE ERABAKI DU:

*Lehenik:* Pandoko hilerriko 14. aldiko horma-hilobietako giza hondarrak ateratzea, sepulturok beren helburua bete behar dutenez gero, behin igarota kasu guztietan hor egoteko hamar urteko epea. Hildakoak eranskin batean zerrendatzen dira.

*Bigarrenik:* Erabaki hau ondoko zerrendan agertzen diren hildakoen senideei eta ukitutako hil-eskubideen titularrei jakinaraztea eta halaber argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta Pandoko hilerriko eta udaletxeko iragarki-oholetan, bidezko ondorioak sortaraz ditzan.

*Hirugarrenik:* Erabaki hau jakinaraztea Lan Sailari eta udal hilerriko arduradunari, horren berri jakin dezaten eta erabakiak ondorioak izan ditzan.

| Aldia | Lerroa | Zk. | Hildakoa | Hil zen eguna |
|---|---|---|---|---|
| 14 | 1 | 1 | SANCHEZ HERNANDO, JESUSA | 19/05/2001 |
| 14 | 1 | 2 | SANZ SIMON, VALENTINA | 26/05/2001 |
| 14 | 1 | 3 | PRIETO VALENCIA, JULIAN | 29/05/2001 |
| 14 | 1 | 4 | LARRAZABAL MILO, JOSE ANTONIO | 03/06/2001 |
| 14 | 1 | 5 | MAYOR SENDIN, FRANCISCO | 04/06/2001 |
| 14 | 1 | 6 | GOMEZ GIL, EMILIANO | 06/06/2001 |
| 14 | 1 | 7 | NUÑEZ VAZQUEZ, JOSE ARMANDO | 09/06/2001 |
| 14 | 1 | 8 | FELIPE FERNANDEZ, ANTONIO | 09/06/2001 |
| 14 | 1 | 10 | CRUZADO CEBALLOS, AMPARO | 20/06/2001 |

•

## Ayuntamiento de Portugalete

**Exhumación de los restos depositados en nichos de la fase 14 del cementerio municipal.**

El correcto funcionamiento del Cementerio Municipal de Pando exige la exhumación de los restos depositados en las distintas sepulturas —nichos y fosas de tierra— a medida que se produce el vencimiento del plazo, señalado a los derechos funerarios que el ayuntamiento otorga, con el fin de servir al destino que les viene asignado.

Comprobado que los enterramientos practicados en nichos de la Fase 14 han cumplido el plazo de diez años señalado, a tenor de los datos obrantes en las Dependencias Municipales. Visto lo dispuesto en el título V (Sepulturas) del Reglamento del Cementerio de Portugalete y de conformidad con el contenido del artículo 59 del Reglamento de Policía Sanitaria Mortuoria en el que se establece la obligatoriedad de dar a conocer al público, con una antelación mínima de tres meses, la exhumación de los restos mediante la publicación de anuncios en los boletines y diarios oficiales y en los particulares de mayor circulación en el municipio, a fin de que las familias de los inhumados puedan adoptar las medidas que su derecho les permita, a propuesta de la Comisión Informativa Permanente de Planificación y Desarrollo Urbano, la Junta de Gobierno Local

ACUERDA:

*Primero:* Aprobar la exhumación de los restos depositados en nicho en la fase 14 del Cementerio de Pando que precisan ser destinados al fin que les viene asignado, una vez que se ha producido el vencimiento del plazo de diez años de estancia y que se encuentran relacionados en el anexo de su expediente.

*Segundo:* Notificar el presente acuerdo a los familiares de las personas fallecidas y a las titulares de derechos funerarios afectados y publicar anuncios en el «Boletín Oficial de Bizkaia», en los diarios de mayor difusión en el Municipio, y en los tablones de anuncios de la Casa Consistorial y del Cementerio de Pando, a los efectos oportunos.

*Tercero:* Comunicar el presente acuerdo al departamento de Obras y al Responsable del Cementerio Municipal para su conocimiento y efectos.

| Fase | Fila | N.º | Fallecido | Fecha fallecimiento |
|---|---|---|---|---|
| 14 | 1 | 1 | SANCHEZ HERNANDO, JESUSA | 19/05/2001 |
| 14 | 1 | 2 | SANZ SIMON, VALENTINA | 26/05/2001 |
| 14 | 1 | 3 | PRIETO VALENCIA, JULIAN | 29/05/2001 |
| 14 | 1 | 4 | LARRAZABAL MILO, JOSE ANTONIO | 03/06/2001 |
| 14 | 1 | 5 | MAYOR SENDIN, FRANCISCO | 04/06/2001 |
| 14 | 1 | 6 | GOMEZ GIL, EMILIANO | 06/06/2001 |
| 14 | 1 | 7 | NUÑEZ VAZQUEZ, JOSE ARMANDO | 09/06/2001 |
| 14 | 1 | 8 | FELIPE FERNANDEZ, ANTONIO | 09/06/2001 |
| 14 | 1 | 10 | CRUZADO CEBALLOS, AMPARO | 20/06/2001 |

cve: BAO-BOB-2016a070